

EUSKARAREN ERGATIBITATEAZ

Idoia Maritxalar Errandonea

Tutorea: Xabier Artiagoitia

Euskal Ikasketak

2017/2018 ikasturtea

Euskal Filologia

LABURPENA

Lan honen helburua azken 30 urteotan euskal ergatibitatearen inguruan, batez ere gramatika sortzailearen barruan, plazaratu diren ideia eta hausnarketan sintesi kritikoa egitea da.

Bai euskal hiztunok eta bai gramatika deskriptibo batzuek (EGLUK 1991, *A grammar of Basque*-k 2003, de Rijk-ek 2008 eta Sareko Euskal Gramatikak) euskara ergatibotzat hartu izan dute, baina adituen artean ikuspegi ezberdinak daude ergatibitatearen nondik-norakoak definitzerako orduan.

Alde batetik, ergatibitatea egiletasunarekin lotzen dutenak daude. Levinek (1983) euskararen NOR Aditzen Hipotesiaren bidez euskararen ergatibitatea egile rolaarekin lotzen du, eta euskara hizkuntza aktibotzat hartzen. Ortiz de Urbinak (1989) hizkuntza ergatibo-absolutibotzat du euskara, eta gainerakoan, Levinen (1983) proposamenarekin bat egiten du. Baina hori bai: azken honek azaldu ezin duen subjektutasunaren arazoari azalpena topatzen dio Ortiz de Urbinak (1989). Laka (2006) ere bat dator Levinen (1983) ikuspegiarekin, baina horretaz gain, ergatibitatea berezko kasuari lotu beharrekoa dela aipatzen du.

Bertzetik, ergatibitatearen ikuspegi formalaren alde egiten dutenak daude; hau da, ergatibitatea argumentu kopuruarekin edo egiturazko kasuarekin lotzen dutenak. Lakak (1993a) ergatibitatea Nahitaezko Kasuaren Parametroarekin erlazionatuta dagoela erraten du, eta ondorioz, ergatiboa agertzeko absolutiboa ere egotea ezinbertzekoa dela. Fernándezek (1997) ere Lakaren (1993a) azterbidea jarraitzen du, baina horretaz gain, aditz ezergatiboen analisi xeheago baten berri ere ematen du. Rezac, Albizu eta Etxepareren (2014) erranetan, ergatibitatea ez dago derrigorrez egiletasunari lotuta: Denbora kategoriari loturiko egiturazko konfigurazio batzuen menpe dago.

Bada goiko bi ikuspegi multzoen tartekorik ere. Oyharçabalen (1992) iritziz, hizkuntza ergakusatiboa da euskara: ergatiboa berezkoa du eta absolutiboa egiturazkoa. Horretaz gain, aipatzen du absolutibo kasua osagarriari zein subjektuari lotuta egon daitekeela.

Bertzalde, aldakortasun dialektala eta ergatibitatea uztarturik, Levinen (1983) Nor Aditzen Hipotesiak ez du euskararen funtzionamendu orokorra azaltzen, mendebaldeko eta erdialdeko kasu-sistematik hurbilago baitago ekialdekoetik baino. Lakak (2006) ere ez ditu ekialdeko hizkerak kontuan hartzen, baina irakurlea horretaz ohartarazten du. Oyharçabalek (1992), iparraldekoa izaki, kontuan hartzen ditu ipar-

ekialdeko hizkera horiek. Horretaz gain, Berrok eta Etxeparek (2017) aditz motak eta subjektuak hizkerekiko erlazioan jartzeko sailkapen bat proposatzen dute. Aldaik (2010), bere aldetik, euskalkien arteko aldeak aurkitzeko asmoz, aditz inergatibo bakunen gaineko azterketa bat egiten du.

Ergatibitatearen gaineko ikuspegiak eta aldakortasunaz errandakoak kontuan harturik, honelaxe definituko nuke euskararen ergatibitatea: batetik, euskara morfologikoki ergatiboa eta sintaktikoki akusatiboa da; bertzetik, egiletasunari lotuta agertzen zaigu mendebaldeko hizkeretan batez ere, baina salbuespenak topatzen ditugu ipar-ekialdeko hizkeretan; azkenik, ergatiboa berezkoa dela erratea ezinezkoa egiten zait horren kontrako argudioak ugari baitira; baina, aldi berean, egiturazkoa dela errateak ere arazoak sortzen dizkit, absolutiboak beti ez baitu ergatiboa agertzea baldintzatzen.

AURKIBIDEA

0. Sarrera.....	5
1. Ergatibitatea gramatika deskriptiboetan.....	5
2. Ergatibitatearekin lotzen diren kontzeptuak.....	7
2.1 <i>IS mailako ergatibitate morfologikoa.....</i>	8
2.2. <i>Aditz sintagmaren edo komunztaduraren mailako ergatibitatea</i>	9
2.3. <i>Sintaxi mailako ergatibitatea.....</i>	10
3. Ergatibitatearen gaineko ikuspegiak	11
3.1. <i>80 urteetako kasu teoriaren inguruko zenbait kontzeptu.....</i>	11
3.1.1 Chomsky (1986): berezko kasua eta egiturazko kasua.....	11
3.1.2 Perlmutterren (1978) hipotesia	12
3.1.3 Burzioren (1986) orokorpena	13
3.2. <i>Egiletasunari lotutako ergatibitatea.....</i>	13
3.2.1 Levinen (1983) NOR Aditzen Hipotesia.....	14
3.2.2 Ortiz de Urbinaren (1989) ikuspegia	17
3.2.3 Lakaren (2006) ikuspegia	18
3.3. <i>Ergatibitatea, argumentu kopuruari edo egituraazko kasuari lotua.....</i>	20
3.3.1 Lakaren (1993) ikuspegia	20
3.3.2 Fernándezen (1997) ikuspegia.....	22
3.3.3 Albizu, Etxepare eta Rezac-en (2014) ikuspegia.....	25
3.4. <i>Tarteko ikuspegiak.....</i>	26
3.4.1 Oyharçabalen (1992) ikuspegia: euskara, ergakusatiboa	26
4. Aldakortasun dialektala eta ergatibitatea	27
5. Hausnarketa eta ondorioak	30
6. Bibliografia.....	33

0. Sarrera

Lan honen helburua azken 30 urteotan euskal ergatibitatearen inguruan, batez ere gramatika sortzailearen barruan, plazaratu diren ideia eta hausnarketak laburbiltzea da, bakoitzaren indargune eta ahulguneak azaltzea, beti ere ikuspegi kritiko batetik.

Abiapuntu gisa, ergatibitatearen gaineko ikuspegi orokor batzuk azalduko ditut: euskal hiztunek ergatiboaren gainean dituzten uste eta iritzi orokorrak, lehenik; eta EGLUk (1991), *A grammar of Basque*-k (2003), de Rijk-ek (2008) eta Sareko Euskal Gramatikak (SEG aurrerantzean) ergatibitatearen gainean duten ikuspuntua, bigarrenik. Behin hori eginda, ergatibitatearekin lotzen diren hainbat kontzeptu definitu eta azalduko ditut (2. atala), gero ergatibitatearen inguruan dauden hipotesiak azaltzeko eta ulertzeko lagungarri izanen direlakoan. Hipotesiak (3. atala), hiru multzotan emanen ditut: alde batetik, egiletasunari lotutako ergatibotasunaren alde egiten dutenak (Levin 1983; Ortiz de Urbina 1989; Laka 2006); bertzetik, ergatibitatea argumentu kopuruarekin edo egiturazko kasuarekin lotzen dutenak (Laka 1993, Fernández 1997 eta Rezac, Albizu eta Etxepare 2014), eta azkenik, aurreko bien arteko ikuspegiak dituztenak (Oyharçabal 1992). Ondotik etorriko den bertze atal batean (4. atala), ergatibitateak dialekto ezberdinetan nola jokatzen duen aipatuko dut, eta azkenik, gaiaren inguruko nire hausnarketa eta ondorioak agertuko ditut (5. atala).

1. Ergatibitatea gramatika deskriptiboetan

Euskal hiztun arruntok euskara ergatiboa den galdetzen badigute, erantzuna baiezkoa da ez bairik gabe. Arrazoa? Gaztelaniaren moduko bertze hizkuntza batzuetan ez bezala, perpaus iragankorretako subjektuak markatu egiten ditugula, ergatiboz markatu, hain zuzen ere, eta perpaus iragangaitzetako subjektua eta iragankorretako objektua berdintzen ditugula.

Euskara hizkuntza ergatibotzat hartzen da gramatika deskriptibo batean baino gehiagotan, bertzeak bertze, EGLUn (1991) *A grammar of Basque*-n (2003), de Rijk-en (2008) eta Sareko Euskal Gramatikan. Hori horrela izanik ere, badirudi ergatiboaren nondik norakoak zehazterako orduan gramatikariak kasu batzuetan ez datozela bat. Zer da ba, ergatibitatea? Zerekin lotzen dute adituek?

EGLUren (1991) arabera, perpaus iragankorretan agertzen zaigu ergatiboa, eta ergatiboz markatzen da perpaus batean suertatzen den prozesuaren egilea. Gainera, egile hori ez du hiztegiak markatzen, baizik eta perpausen arteko egitura sintaktikoek markatzen dituzten harremanek. Horren froga dira ondoko bi perpausok:

- (1) a. Zure nebak eramango du kotxea etxera.
b. Kotxeak zure neba eramango du etxera.

(1a)-n *zure nebak* da egilea, baina (1b)-n, ordea, *kotxeak*. Egile horiek ez ditu aurreko kontzepzio batek markatzen, eta horrek argi erakusten du ez dagoela harreman zuzenik ustezko logikaren eta sintaxiaren artean, eta sintaxi harremanak direla ergatiboa baldintzatzen dutenak. Horretaz gain, ergatiboaren markaketak subjektua eta osagarria bereizteko balio du.

A Grammar of Basque (2003:6) gramatikak euskara izen sintagmaren morfologian eta aditzarekiko komunztaduran ergatiboa dela erraten du, baita *iragankor/iragangaitz* kontzeptuak ergatibo marka agertzea edo ez agertzearekin lotuta daudela ere. De Rijk (2008:197) ere ez dago ikuspegi horretatik urruti: euskara morfologikoki ergatiboa da eta ergatiboa perpaus iragankorretako subjektuei ezartzen zaien marka berezia da. Horretaz gain, perpaus iragangaitzen subjektuak eta iragankorren objektuak berdin markatzen dira (absolutiboz) eta iragankorren subjektuak ezberdin (ergatiboz).

Sareko Euskal Gramatikak (2011) honako adibideok ematen ditu euskara ergatiboa dela frogatzeko:

- (2) a. Ainhoak Mikel ikusi du.
b. Mikel erori da.

(2a) perpausa iragankorra da, eta subjektua ergatiboa (-*k*) eta osagarri absolutiboa (\emptyset) ditu. (2b), aldiz, iragangaitza da eta subjektua absolutiboa (\emptyset) du.

Mikel izen sintagmari erreparatuz gero, ikus daiteke bi perpausetan funtzio desberdina duela, lehenean osagarria da eta bigarreanean subjektua. Funtzio ezberdina izanik ere, morfologia bera ageri da bi kasuetan: absolutiboa. Horrek ondorioztatzen du morfologia eta sintaxia ez datozela bat; izan ere, nahiz eta ergatiboa beti subjektu den, absolutiboa batzuetan subjektu eta bertzeetan osagarri da.

Kontuak sinplea dirudi orain arte azaldu bezala ikusirik; baina dena ez da ematen duen bezain erraza eta argia. Horretan sakontzea izanen da ondoko atalaren egitekoa.

2. Ergatibitatearekin lotzen diren kontzeptuak

Azken urteotan ergatibitatea aztertzen aritu diren hainbat hizkuntzalarik euren aztergaia bertze hainbat kontzeptu eta hipotesirekin lotu izan dute. Hori dela eta, komeni da delako kontzeptu eta hipotesi horiek atal honetan azaltzea, bertzelako xehetasunak ematen hasi aitzinetik.

Artiagoitiak (2000: 187-188) aipatu duen bezala, ergatibitatea ulertzeko bi modu daude. Lehenik definizio tradizionala aipatu behar genuke, zeinaren arabera ergatiboa iragangaitzetako subjektua eta iragankorretako objektua berdin markatzearekin lotuta dagoen. Horren arabera, eta hizkuntzari azaletik erreparatuta, euskara ergatiboa litzateke:

- (3) a. Neska erori da.
- b. Mutilak neska ikusi du.

Dena den, Artiagoitiak (2000: 188) azpimarratzen du definizio tradizional honen barruan *iragankor* eta *iragangaitz* definitzea ezinbertzekoa dela. Salabururen (1991:418-419) arabera, bi eratara uler daitezke iragangaiztasuna eta iragankortasuna. Lehen, aditz laguntzaile motarekin erlazionatuta dago, eta dagoeneko aipatu dugu: iragankorra **edun* eta **ezan* laguntzaileak hartzen dituen aditza litzateke; iragangaitza, ordea, *izan* eta **edin* hartzen dituen.

Bigarrenak, argumentuen kopurua eta izaera hartzen ditu aintzat: argumentu bakarra eskatzen duen aditza iragangaitza izanen da; bi eskatzen dituen, ordea, iragankorra.

- (4) a. Miren etorri da → Argumentu bakarra (gaia)
- b. Mirenek laguna agurtu du → Bi argumentu (egilea eta gaia)

Bi ikuspegiak berdinak dirudite hasiera batean, baina sakonkiago aztertuz gero, alde nabarmena dutela konturatuko gara. Aditz laguntzaile motekin lotutako ikuspegiaren arabera, *dimititu*, *irakin* eta *jardun* bezalako aditzak iragankorrek izanen liriateke, **edun* eta **ezan* hartzen baitituzte laguntzaile gisa:

- (5) a. Alkateak dimititu (du/dezake).
- b. Urak irakin (du/dezake).
- c. Irakasleak lanean jardun (du/dezake).

Bigarren ikuspegiarekin, ordea, ezinezkoa da aipatu berri ditugun aditzak iragankortzat hartzea; izan ere, argumentu bakarrekoak lirategi:

- (6) a. Alkateak dimititu du → *alkateak* (egilea). Gairik ez.
- b. Urak irakin du → *urak* (gaia). Egilerik ez.
- c. Irakasleak lanean jardun du → *irakasleak* (egilea). Gairik ez.

Bertzalde, Artiagoitiaren (2000:188-191) erranetan, ergatiboaz ari garela, beharrezkoa da dituen mailez ere solastea. Ergatiboa hiru mailatan agertzen zaigu: IS morfologia mailan, aditz morfologia mailan (azkenok ergatibitate morfologikoari dagozkio) eta sintaxi mailan (sintaxi mailako ergatibitatea).

2.1 IS mailako ergatibitate morfologikoa

Mailei erreparatu baino lehen, argumentuen gauzatzea nola gertatzen den azaltzea beharrezkoa da. Hiru argumentu motak kontuan hartuta (aditz iragankor arruntan *egile* argumentua, A; aditz iragankorren *gai* argumentua, O; eta aditz iragangaitzean subjektu argumentua, S) eta aditz sintagmaren morfologiaren aldetik, hizkuntzek bi eratara joka dezakete:

- Hizkuntza nominatibo-akusatiboak: egile eta aditz iragangaitzen subjektuak berdintzen dira (A, S vs O).
- Hizkuntza ergatibo-absolutiboak: gaia eta subjektuak berdintzen dira (S, O vs A).

Euskarak, hizkuntza ergatibo-absolutiboa denez gero, berdindu egiten ditu NOR aditzen subjektu argumentua eta aditz iragankorren gaia, eta egilea desberdin adierazten du:

- (7) a. Miren etorri da.
- b. Amaiak Miren agurtu du.

Gure hizkuntza ISren morfologiaren aldetik ergatiboa izatea aipatu berri dugunari zuzenean loturik dago: jokabide ergatibo-absolutiboa erakusten du izen sintagmaren morfologian, eta hori aski omen da alde horretatik hizkuntza ergatibo-absolutiboa dela baieztatzeko.

2.2. Aditz sintagmaren edo komunztaduraren mailako ergatibitatea

Hizkuntza nominatibo-akusatiboetan, aditzeko egile argumentuen eta aditz iragangaitzen subjektuen komunztadura morfemak elkarrekin multzokatzen dira. Ergatibo-asbolutiboetan, bertzela gertatzen da: aditz iragankorren gai argumentuen eta aditz iragangaitzen subjektuen komunztadura morfemak dira elkarrekin multzokatzen direnak.

Euskara, lehen aipatu bezala, hizkuntza ergatibo-absolutiboen artean kokatuta dago, eta horrek erran nahi du, komunztaduraren aldetik ere, NOR aditzen subjektu argumentuek eta aditz iragankorren objektu argumentuek komunztadura morfema berdintsuak dituztela:

- (8) a. Nik Mikel zaindu du-t.
b. Aitorrek ni zaindu n-au.
c. Ni menditik etorri n-aiz.

Ikus daitekeen moduan, bi *ni*-en komunztadura marka *n-* da eta *nik*-ena, *-t*.

Dena den, aipatu behar da aditz morfologia neutraldu egiten dela euskaraz (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1993b, Fernández 1997) edo IS ergatiboarekiko komunztadura markak lekuz aldatzen direla (EGLU, 1991; EGLA, 1993): aditzaren morfologian absolutiboko argumentua 3. pertsona denean eta adizkia orainaldikoa ez denean, aditz iragankorren egile argumentuak eta osagarri argumentuak, eta aditz iragangaitzen subjektuak komunztadura morfema bertsuak dituzte:

- (9) a. Etorri *n*-intzen/etorriko *n*-intzateke.
b. Ikusi *n*-induen/ikusiko *n*-induke.
c. Ikusi *n*-uen/ikusiko *n*-uke.

Hala ere, kasu honetan aditzaren morfologia ergatibo-absolutiboa ez bada ere, izenarenari eutsi egiten zaio:

- (10) a. *Ni* etorri nintzen.
b. Zuk *ni* ikusi ninduzun.
c. *Nik* hura ikusi nuen.

Aipatu berri dudanagatik, euskararen ergatibitatea, aditz komunztaduraren mailan behintzat, ergatibo erdibituztat (Ortiz de Urbina 1989; Fernandez 1997) har daiteke.

2.3. Sintaxi mailako ergatibitatea

Hizkuntza bat sintaktikoki ergatiboa izateak erran nahi du, bertzeak bertze, *gai* argumentuak perpaus iragankorren subjektuak edo kanpo argumentuak direla, eta horrenbertzez, aditz iragangaitzen subjektuekin berdintzen direla. Horrela, hizkuntza ergatiboetan ergatibo marka daraman argumentua objektua litzateke, eta absolutiboa subjektua.

Hauxe planteatzen du Marantzek (1984): hizkuntza ergatiboetan, aditzak egile rola ezartzen dio osagarriari, eta *gai/jasaile* rola subjektuari. Hizkuntza sintaktikoki ergatibo¹ baten adibidea dyirbalera litzateke.

Morfologikoki ergatiboa den hizkuntza bat sintaktikoki ere hala izan daiteke, baina ez du zertan: badira morfologikoki ergatiboak direnak, baina sintaktikoki akusatiboak. Ikus dezagun:

(11) a. *Jonek* [PRO *joan*] nahi du.

b. *Jonek* [PRO *dimititu*] nahi du.

Bi kasu horietan, kontrol egiturek perpaus nagusiaren subjektu berbera dute: lehen kasuan *Jonek* *joan* nahi du eta *Jon* da joango dena; bigarren kasuan, *Jonek* *dimititu* nahi du eta *Jon* da dimitituko duena.

Ikus dezagun bertze adibide hau:

(12) *Jonek* [PRO *irakurri*] nahi du.

Bi interpretazio posible izan ditzake teorian:

a. *Jonek* *irakurri* nahi du eta *Jon* da *irakurri* nahi duena (subjektua perpaus nagusian eta menpekoan berdina).

b. *Jonek* *irakurri* nahi du, baina *Jonen* asmoa ez da *irakurtzea* izanen; *irakurria* izatea baizik.

Lehen interpretazioa akusatibitate sintaktikoarekin lotzen da; bigarrena, ordea, ergatibitate sintaktikoarekin. Bigarrenak, *dudarik gabe*, ez du zentzurik euskaraz.

¹ Euskara ergatiboa balitz Marantzen arabera, teoria pasibisten antzeko analisia behar luke. Honetan sakontzeko, ikus Sarasola (1977).

Ergatibitatearen gaineko orokortasun eta usteak azalduta, gaiari buruz hizkuntzalariek diotena azalduko dut jarraian. Aipatu berri dut ergatibitatea hiru mailatan azal daitekeela; bada, ni IS mailako ergatibitate morfologikoan oinarrituko naiz.

3. Ergatibitatearen gaineko ikuspegiak

Adituek diotena azaldu baino lehen, kasu teoriaren inguruan 80. hamarkadan egin ziren hainbat hipotesi eta kontzeptu gogora ekarriko ditut jarraian, ondotik datozen ikuspegiak kokatzeko eta ulertzen laguntzeko.

3.1. 80 urteetako kasu teoriaren inguruko zenbait kontzeptu

3.1.1 Chomsky (1986): berezko kasua eta egiturazko kasua

1986. urtean, Chomskyk kasu teoria garatu zuen eta egiturazko kasua eta berezko kasua bereizi zituen. Egiturazko kasuan, alde batetik, denbora jokatuak kasu subjektiboa (euskaraz ergatiboarekin identifika litekeena) ezartzen dio gobernatzen duen DSri; bertzetik, aditzak kasu objektiboa (absolutiboa, euskaraz) ezartzen dio gobernupean duen DSri. Kasua ezartzeko, beraz, gobernu da baldintza.

Gobernu erlazioaren arabera, A-k B gobernatzen du baldin eta A-k eta B-k elkar menderatzen ez badute, eta A menderatzen duen lehen islapen nagusiak B ere menderatzen badu. Hartara, buru batek bere osagarria eta espezifikatzailea, biak, *gobernatzen* ditu printzipioz. Errepara diezaiozun adibide honi:

(13) a. Biztanle guztiek laguna hautatu dute.

b. Biztanle guztiek laguna herriko alkate hautatu dute.

(13a)-n, denbora jokatuak (*dute* laguntzaileak) kasu subjektiboa (ergatiboa, euskararen kasuan) ezartzen dio gobernatzen duen *biztanle guztiek* DSri. Aditzak (*hautatu*) objektiboa (absolutiboa) ezartzen dio gobernatzen duen *laguna* DSri. Beheko (13b)-n ere antzera gertatzen da: *dute* laguntzaileak ergatiboa ezartzen dio *biztanle guztiek* DS-ri, eta aditzak absolutiboa *laguna herriko alkate* perpaus txikiaren barruko *laguna* DSri. Beraz, egiturazko kasua ezartzeko orduan, ez da nahitaezkoa *laguna*

bakarrik izatea osagarri zuzena, perpaus txiki bat ere izan daiteke, baina gobernuaren erlazioa mantentzen da beti².

Berezko kasua ezartzeko, eta Chomskyk (1986) erran zuen bezala, batera eman beharreko bi baldintza dira ezinbertzeko: bata, kasu emaileak kasua jasotzen duena gobernatzea; bertzea, lehenak bigarrena theta-markatzea. Azken honi Berezko Kasuaren Uniformetasunaren Baldintza³ deritzo. Horrekin batera, aipatu behar da izenak eta adjektiboak berezko kasuaren ezarle izan daitezkeela, eta kasu genitiboa ezartzen dutela, theta rola esleitzeaz gainera. Hobeto ulertuko dugu adibide hauekin:

(14) a. Lagunaren hautaketa.

b.*Lagunaren herriko alkate hautaketa.

Ikus dezakegun moduan, (14a) adibidean *hautaketa* izenak kasua (genitiboa) eta theta rola (gaia) ezarri dizkio *lagun* DSri (bigarrena lehenaren argumentu zuzena da); (14b)-n, ordea, izenak ezin dio DSri genitiborik ezarri, *laguna* DS ez baita *hautaketa* izenaren barne argumentu; *lagunaren herriko alkate* perpaus txikia osorik da barne argumentu. Izan ere, ez da Berezko Kasuaren Uniformetasunaren Baldintza betetzen.

3.1.2 Perlmutterren (1978) hipotesia

Perlmutterren hipotesiaren berri (1978) ematea ere komeni zaigu, labur bada ere. Azken honek ondorengoa proposatzen du: nahiz eta aditz iragangaitz batzuek kanpo argumentua duten, bertze aditz iragangaitz batzuen subjektua aditzaren barne argumentua da. *Hipotesi Ezakusatiboa* deritzo honi.

Horrekin batera, aditz iragangaitzak bi multzotan banatzen ditu (aditz ezergatiboak eta aditz ezakusatiboak), theta rolen arabera egin ere. Ezergatiboen subjektuek egile rola hartzen dute, eta borondatezko ekintzak lirateke predikatu ezergatibo horiek: ariketa aditzak (*jolastu, kantatu, dantza egin...*), hizketa aditzak (*hitz egin, berba egin, oihu egin...*) eta animalien soinua adieraztekoak (*zaunka egin, orroe egin, mauka egin...*).

Ezakusatiboen subjektuek *gai* rola dute, eta honako predikatu hauek lirateke: gai/jasailea duten aditz iragangaitzak (*erre, erori, hondoratu*), existentzia eta gertaera

² 80. hamarkadan *gobernu* hitzaren aldaera ugari erabili zituen Chomskyk, baina printzipioz tartean hesirik ez badago, aditzak gobernatu egiten du perpaus txikiaren barruko *laguna* DS (13b) adibidean. Honetaz ikus Artiagoitia 2000: 163 hh).

³ Berezko Kasuaren Uniformetasunaren baldintza: X berezko kasuaren ezarle bada, X-k kasua ezarriko dio DS bati baldin eta X-k DS theta-markatzen badu (Artiagoitia, 2000: 168).

predikatuak (*izan, egon, gertatu, jazo*), borondaterik gabeko estimulu isurtze predikatuak⁴, aspektuzko predikatuak (*amaitu, hasi, jarraitu*), iraupenezko predikatuak eta neurriak (*iraun, egon, bizi*), formak, koloreak, buru-egoerak adierazten dituzten predikatuak (*handi, txiki, borobil*).

Hasieran aipatu dugun hipotesiari jarraiki, ezergatiboek kanpo argumentua dute (benetako subjektua), eta ezakusatiboek barne argumentu bat daukate, gerora bere lekutik mugitu eta subjektu bihurtzen dena.

3.1.3 Burzioren (1986) Orokorpena

Chomsky-ren kasu teoriaren inguruko ekarpenei lotuta, garrantzitsua da Burzio italiarraren ekarpenak ere aipatzea. Burziok orokorpen bat egin zuen 1986.urtean: aditz batek, kanpo argumenturik (egilerik) ez badu, ezin dio bere osagarriari kasu objektiboa ezarri; eta aditz batek, bere osagarriari kasu objektiboa jartzen ez badio, ezin du kanpo argumenturik eduki. Bertze era batera erranda, bere subjektuari theta-rola ezartzen dioten aditzek bakarrik ezar diezaiokete kasua bere objektuari; eta bere objektuari kasua ezartzen dioten aditzek soilik ezar diezaiokete theta rola bere subjektuari.

Honen guztiaren ondorioa honakoa da: ezakusatiboetan argumentu bakar horrek subjektu posiziora mugitu behar duela.

Ondorengo ataletan, ergatibitatea egiletasunarekin lotzen duten hizkuntzalarien ekarpenak aipatzeaz gain, aipatu berri ditugun Perlmutter-en hipotesia eta Burzioren orokorpenari buruz nola jokatzen duten ere aztertuko dugu.

3.2. Egiletasunari lotutako ergatibitatea

Ikuspegi honetan sartzen diren egileek ergatiboa argumentu zehatz batekin lotzen dute: *egile* argumentuarekin. Haien erranetan, berdin da aditzak zenbat argumentu dituen; aditz batek egile argumentua eskatzen badu, argumentu hori beti ergatiboz markatuko da.

Bide honi jarraitzen dioten zenbait hizkuntzalari daude, baina lan honetan hiru hauek aipatuko ditugu bereziki: Levin (1983), Ortiz de Urbina (1989) eta Laka (2006).

⁴ Perlmutterrek printzipioz ezakusatibotzat hartzen ditu predikatu hauek, baina ikusteke dago euskaraz hala diren (euskalki gehienetan **edun* laguntzailea hartzen dute).

3.2.1 *Levinen (1983) NOR Aditzen Hipotesia*

Levinek bere tesian euskarazko ergatibitatearen ikuspegi aktiboa azaldu nahi du, ergatiboa egile argumentuari lotuta dagoela frogatu. Horretarako, hainbat argudio eta adibide ematen ditu.

Hasteko, Levinek NOR Aditzen Hipotesia proposatzen du. Horren arabera, euskarazko NOR aditz guztiak ezakusatiboak (subjektua=gaia) dira: *etorri, atera, sartu...* Hipotesi honen alde egiteko hiru argudio ematen ditu Levinek:

a) *Lehenengo argudioa*: Partitiboa NOR aditzen argumentuarekin eta NOR-NORK aditzen objektu argumentuarekin bakarrik erabil daiteke:

- (15) a. Ez dut haurrik ikusi.
- b. Ez da haurrik etorri.
- c. *Ez du haurrik jolastu.

NOR saileko aditzak ezakusatiboak badira, eta Perlmutteren (1978) arabera, argumentu bakar hori sakoneko objektua bada, erran daiteke partitiboa sakoneko objektuarekin lotuta dagoela.

b) *Bigarren argudioa*: theta rolen ezarpena berdina da aditz inkoatiboa/arazlea eta iragankorra/inpertsionala sail aldaketa duten bikoteetan, eta argumentu bakarreko aldaeran beti NOR agertuko da. Argumentuen alternantzia deitzen zaio horri.

- (16) a. Mirenek *atea* ireki du.
 <egilea, gaia>
- b. Heriotzak *aita* kezkatzen zuen.
 <eragilea, esperimantatzailea>⁵

Bi adibide hauek arazleak dira, eta bai *atea* eta bai *aita* aditzaren barne argumentuak dira. Jarraian datozen adibideak, ordea, inkoatiboak (arazlerik gabekoak) dira, eta ikusiko dugu nola aditza NOR (hots, absolutiboa) saileko bihurtzen den eta *izan* laguntzailea hartzen duen:

- (17) a. *Atea* ireki da.
 <gaia>
- b. *Aita* kezkatzen zen.
 <gaia>

⁵ Levinek oro har ez ditu *eragilea* eta *esperimantatzailea* erabiltzen, *egilea* eta *gaiarekin* berdintzen ditu.

Atea eta *aita* DSek thera rol bera dute (gaia) eta absolutibo kasua dute. Aditza, kanpo argumenturik ez dagoenez, NOR saileko bihurtzen da.

Bikote inkoatibo/arazle horien eta hurrengo adibideetako bikote iragankor/inpertsionalen konparaketa eginez gero, konturatuko gara egilea eta gaia agertzen direnean NOR-NORK motako perpaus baten aurrean egonen garela; gaia bakarrik agertzen denean, berriz; NOR motakoa izanen da. Honen ondorioa zera da: NOR aditzak (aditz ezakusatiboak) gaia rol tematikoari zuzenean loturik daudela.

Perpaus iragankorrak inpertsional bihurtzen ditugunean ere antzeko zerbaiz gertatzen da:

- | | | |
|------|---------------------------|-------------------|
| (18) | a. Gizonak etxea egin du. | b. Etxea egin da. |
| | <egilea, gaia> | <gaia> |

Ikusten dugunez, egilea eta gaia dituen perpausa NOR-NORK motakoa da, baina egitura inpertsional bihurtu eta egilea galtzen duenean, aditza NOR izatera pasatzen da eta laguntzaile moduan *izan* hartzen du.

NOR-NORK motako egitura guztiek ez dute berdin jokatzeko ordea. Mota honetako zenbait aditzetan, gaia desagertu egiten bada eta egilea bada geratzen den argumentu bakarra, geratzen den argumentua NORK izanen da beti eta ergatiboz markatua agertuko da:

- | | |
|------|---|
| (19) | a. Jonek sagarra jaten du. <egilea, gaia> |
| | b. Jonek ongi jaten du. <egilea> |

Azken datu multzo hau ere Levinen NOR Aditzen Hipotesiaren aldeko da. Gogora dezagun, bere erranetan, Perlmutterren (1978) gai edo jasaile argumentudun aditz ezakusatiboak direla NOR aditz horiek. Aipatu berri dugun adibideak erakusten duen bezala, argumentu bakarra dagoenean eta argumentu horrek egile rola duenean, ez dugu NOR aditzik espero. Aditz horrek ezin du NOR sailekoa izan.

Euskaraz alternantzien kasu markaketa theta rolen arabera aldatzeak iradokitzen du absolutiboa rol jakin batekin lotzen dela, *gaia* rolaekin, hain zuzen ere. Horren ondorioz, kasu markaketa ergatiboa zuzenean egile rolari lotuta agertzen zaigu. Gogora dezagun hizkuntza ergatibo bat, ikuspuntu tradizionaletik begiratuta, ergatiboa argumentu kopuruarekin lotzen duena eta absolutiboa ergatiboa agertzeko ezinbertzeko

baldintzat hartzen duena dela. (19) adibideak, beraz, hautsi egiten ditu aipatu berri ditudan bi baldintza horiek.

c) *Hirugarren argudioa*: euskarazko NOR aditzak Perlmutterren (1976) aditz ezakusatiboen definiziora egokitzen dira: mugimendu aditzak, jarrera edo egoera aldaketak, emozio-erreakziozko aditzak, existentzia aditzak eta aditz aspektualak.

Hori frogatzeko, NOR aditzak ez direnak aztertu eta sailkatzen ditu Levinek. Bi helburu ditu: batetik, predikatu ezergatiboak topatzea; bertzetik, azpimarratzea ezergatiboak ez direla NOR sailekoak.

Predikatu ezergatiboen artean (*izena + egin*) egituradun aditzak daude, bertzeak bertze: *barre egin, dantza egin, negar egin, zurrunga egin, irrintzi egin, ziztu egin, eztul egin...* Multzo honetakoez argumentu bakarra dute Levinentzat, eta argumentu hori egilea da.

Horretaz gain, aipatzen du komunikazio aditzak ez direla, gehienetan behintzat, NOR motakoak izanen. Adibidetzat hartzen ditu *hitz egin, zin egin, oihu egin, galde egin, esan, galdetu, aipatu...* Eta salbuespen baten berri ere ematen du: *mintzatu*. Azken aditz hau, hizketa aditza izanik ere, NOR aditza litzateke.

Beraz, horren guztiaren ondorioz, Levinen NOR Aditzen Hipotesiaren oinarriak jarrita geratzen dira: oro har, NOR aditzak gaia theta rolari lotua agertzen dira, eta horrenbertzez, ezakusatiboak dira. Bertzela erranda, Levinen hitzetan argumentu bakarra dagoenean zein argumentu mota den begiratu behar da, eta horren arabera, modu batez edo bertzez markatu: gaia bada, absolutiboaz; egilea bada, ergatiboaz.

Bertzalde, aditz ezergatibo tipikoak (ariketa aditzak eta hizketa aditzak) ez dira NOR aditzen multzoan sartzen Levinen ustez, *mintzatu* aditzaren salbuespenarekin.

Lehen aipatu dugu Burzioren (1986) orokorpenaren arabera aditzak osagarriari ezin diola kasu objektiboa ezarri kanpo argumenturik ez dagoen kasuan. Euskararen kasuan, dena den, badirudi Burzioren orokorpena ez dela betetzen; izan ere, euskaraz subjektua aditz ezakusatiboarena denean, subjektua absolutiboan agertzen da. Euskaraz posible da aditzak osagarriari kasu objektiboa ezartzea kanpo-argumenturik eduki gabe (NOR aditzen kasuak):

(20) Ana jaio da.

Levinek (1983) ez dio azalpen aurkitzen arazo horri, baina gero ikusiko dugun bezala, Ortiz de Urbinak (1989) azaltzen du.

Ondorioz, eta Levinen (1983) hipotesia laburtze aldera, honakoa aipatu behar da: alde batetik, ergatiboa agertzeko ez dago absolutiboaren beharrik, ergatiboaren baldintza bakarra kanpo argumentu bat (egilea) egotea baita. Bertzetik, printzipioz ez da egile argumentua duen NOR aditzik espero. Azkenik, euskara ez da hizkuntza ergatiboa, hizkuntza aktiboa baizik, ergatibotasuna egiletasunari lotuta agertzen baita, eta ez hainbertze argumentu kopuruari. Argumentu kopuruari lotuta ez egonik ere, Levinentzat (1983) ergatiboa egiturazko kasua da; hau da, inflexioak kasu subjektiboa (euskaraz ergatiboa) ezartzen dio gobernatzen duen DSri, eta aditzak kasu objektiboa (absolutiboa, euskaraz). Gerora ikusiko dugun bezala, aipatu berri dudana da Levinen (1983) eta Lakaren (2006) ikuspegiaren arteko bereizketetako bat.

3.2.2 Ortiz de Urbinaren (1989) ikuspegia

Ortiz de Urbinaren (1989) iritziz, euskara hizkuntza ergatibo-absolutiboa da: perpaus iragankorretan subjektua ergatiboz markatua ageri da, eta perpaus iragangaitzetako subjektuak eta iragankorretako objektuak absolutiboak dira. Ergatiboa markatua izanen da, eta absolutiboa ez-markatua.

Euskarak hizkuntza ergatibo-absolutibo batek bezala jokatzek erran nahi du bere ergatibitatea morfologikoa dela, alegia, kasu markaketari eta aditzarekiko komuntadurari lotuta dagoela. Baina ergatibitate morfologikoa agertzek ez du erran nahi derrigorrez ergatibitate sintaktikoa ere agertuko denik. Ortiz de Urbinaren (1989) erranetan, euskara ez da sintaktikoki ergatiboa, akusatiboa baizik (ikus 3.3 atala).

Gainerakoan, Levini (1983) jarraitzen dio Ortiz de Urbinak (1989), eta bat egiten du bere proposamen guztietan.

Levinen (1983) hipotesiaz aritu naizenean aipatu dut bere ustetan Burzioren (1986) orokorpena euskaraz ez dela betetzen, NOR aditzak gai direlako euren osagarriari kasu objektiboa (absolutiboa, euskaraz) ezartzeko nahiz eta kanpo argumenturik ez egon. Hala ere, ezin du azaldu zergatik gertatzen den hori. Horri lotuta, Levinek (1983) aipatzen du euskarak ez duela ISren morfologian jokabide ergatibo-absolutibo argirik agertzen, benetako hizkuntza ergatibo batek ez dituelako aditz ezakusatiboak eta ezergatiboak bereizten. Horregatik, euskara hizkuntza aktibotzat hartzen du.

Ortiz de Urbinak (1989) bertze azalpen bat ematen dio Levinek (1983) konpondu gabe utzitako arazoari. Bere iritziz, euskaraz Burzioren (1986) orokorpena bai betetzen da, eta horren arabera inflexioak edozein kasu ezar lezake: denborak edo

inflexioak argumentuaren sorgunea ikusten du, eta horren arabera jartzen du kasua. Modu honetan, egilerik ez badago, eta ondorioz, ezin bazaio osagarriari absolutiboa jarri, aditz laguntzailea izanen da subjektuari kasua jarriko diona. Kasua zein izanen den, ergatiboa edo absolutiboa, aditz laguntzaileak erabakiko du, argumentu bakar horren sorgunearen arabera.

Horrela, Levinek (1983) azaldu ezin duena, subjektutasunaren arazoa, alegia, azalduta geratzen da, beraz: osagarria aditz sintagmatik espezifikatzaile posiziora, subjektuaren lekura, desplazatzen da, Burzioren orokorpenarekin bat.

3.2.3 Lakaren (2006) ikuspegia

Lakak (2006) ere, Levinen (1983) hipotesiari jarraitzen dio, eta, horretaz gain, ergatibitatea berezko kasuari lotuta azaltzen du.

Lakaren (2006) erranetan, euskaraz ergatiboa berezko kasua da; hau da, zuzenean dago loturik *egile* theta rolen ezarpenari. Ikus dezagun zertan den kasuaren eta theta rolaren arteko erlazio hori:

- (21) a. Txalupa hondoratu da.
- b. Ekaitzak txalupa hondoratu du.
- c. Ekaitza sortu da.

Adibide hauetan, *txalupa* gaia da agertzen den bi esaldietan, eta absolutibo gisa agertzen da. Berdin da perpausa iragangaitza (21a/c) edo iragankorra (21b) den. *Ekaitza*-ri erreparatzen badiogu, ikusiko dugu agertzen den bi perpausetan rol tematiko ezberdina hartzen duela: (21b)-n *egilea* da eta ergatiboz markatuta dago, baina (21c)-n gaia da eta absolutiboa hartzen du. Horrek guztiak ondorio batera garamatza: gramatika ergatiboetan, absolutiboa da perpaus iragangaitz ezakusatiboetan posible den kasu bakarra. (21b) bezalako perpaus iragankorretan, ergatiboa egiletasunari lotua agertuko da beti.

Bertzalde, Lakak (2006) aditz iragankor ezergatiboak eta iragangaitz ezergatiboak bereizten ditu. Azter ditzagun iragankor ezergatiboen adibide hauek:

- (22) a. Gizonak aharrausi egin du.
- b. Olik lo egiten du.

Bai (22a) eta bai (22b) perpausak iragangaitzat har daitezke argumentu kopuruari erreparatuz gero: argumentu bakarra dute, *egilea*. Baina, horrek arazo bat

sortzen digu; izan ere, perpaus iragangaitzetan ez da ergatiboz markatutako subjekturik espero.

Horregatik, Lakak (22a) eta (22b) bezalako perpausak iragankorrak direla defendatzen du, argumentu bikoak. (22a)-ren kasuan *gizonak* egilea litzateke eta *aharrausi* gaia, eta (22b)-ren kasuan, *Olik* egilea eta *lo* gaia.

Perpaus iragangaitz ezergatiboei erreparatuz gero, konturatuko gara haietako anitz maileguak direla eta hainbat arazo dakartzatela. Ikus dezagun:

(23) a. Klarak ongi eskiatzen du.

b. Erlojuak ongi funtzionatzen du.

Bi perpaus hauek, goiko biak bezala, ezergatiboak dira, baina badute berezitasun bat: ez dira iragankorrak. Ez dute osagarririk eta, beraz, ezin da absolutiborik ezarri. Gogora dezagun egiturazko kasuetan absolutiboa derrigorrezkoa dela ergatiboa pizteko; horrek erran nahi du goiko adibideetan ergatiboa ez dela egiturazkoa, berezkoa baizik.

Dena den, aipatu behar da ezergatibo guztiak ez direla mailegu:

(24) Eguzkiak disdiratzen du.

Disdiratu ez da mailegua, eta egileak ergatiboa darama, nahiz eta predikatua iragangaitza izan. Fenomeno hau berezkotasunarekin lotuta dago.

Horretaz gain, kontuan izan behar da perpaus iragangaitzetan oro har subjektua absolutiboa izaten dela, horrexegatik, (24) adibideetan ere horixe esperoko guke: subjektuek absolutiboak behar lukete. Baina ez denez horrela, arazo batekin egiten dugu topo.

Aipatu dut iragangaitz ezergatibo batzuk mailegu direla, baina mailegu guztiak ez dira ezergatibo: mailegu ezakusatiboak ere badaude. Alberdiren (2003) arabera, ezakusatibo bat mailegu denean, ergatiborik ez da agertuko subjektuan:

(25) Gizona errenditzen da.

Horrela, badirudi maileguak euskarara egokitzerako orduan tipo semantikoari begiratzen zaiola: ezakusatiboa bada, absolutiboa ezarriko zaio; agentetik hurbilago badago, ordea, ergatiboa.

Bertzalde, Laka (2006) bere ikuspegia defendatzeko bertze argudio garrantzitsu batez ere baliatzen da, *ari izan* egituraz, hain zuzen ere. Egitura hauek ez dute sekula ergatiborik hartzen, ondoko adibideotan ikus daitekeen bezala:

(26) a. Gizona aharrausi egiten ari da.

b. Oli lo egiten ari da.

Postalen (1977) erranetan, *ari izan* egitura antipasiboa da: kasua egiturazkoa da euskaraz, hizkuntza ergatiboetan antipasiboak hizkuntza aktiboetako pasiboen ispilu baitira. Pasiboak nominatiboa ezartzen dio gaiari, eta antipasiboak absolutiboa egileari. Laka (2006) ez dator bat Postalen (1977) ekarpenarekin, eta egitura antipasiboen kontrako analisia proposatzen du, absolutiboa eta egilea parekatu ezin direla defendatzeko. Horretarako, *ari izan* egituretan bi aditz (eta ondorioz, bi perpaus) ezkututzen direla proposatzen du:

a) *Ari* ezakusatiboa: subjektuari gaia ezartzen dio. Aditz honek lokatibodun bertze aditz bat hartzen du.

b) Lokatiboan barneratutako aditza, nominalizatutako egituraren buru dena, eta theta rola ezartzen diena bere baitako argumentuei.

(27) Oli_{abs, gaia} [PRO_{egilea} lo egiten] ari da.

Aipatutakoaren arabera, (26)-ko adibideetako *gizona* eta *Oli* ez dira absolutiboz markaturiko egileak, absolutiboz markaturiko gaiak baizik. Honek argi erakusten du mota honetako egituretan ez dagoela kasuaren eta theta rolaren arteko loturarik.

Laburbilduz, Lakak (2006) Levini (1983) jarraitzen dio kasu ergatiboa egiletasunari lotzen zaiolako ustean, eta horretaz gain, euskaraz ergatiboa berezko kasua dela azpimarratzen du, theta rol jakin bati, egiletasunari, lotuta baitago.

3.3. Ergatibitatea, argumentu kopuruari edo egiturazko kasuari lotua

Ergatibitatearen ikuspegi tradizionalaren barruko bi ikuspegi atzertuko ditut jarraian: Laka (1993a), Fernandez (1997) eta Rezac, Albizu eta Etxepare (2014).

3.3.1 Lakaren (1993a) ikuspegia

Lakaren (1993a) ikuspegia, Nahitaezko Kasuaren Parametroarekin (hemendik aitzin NKP) erlazionatuta dago. Aipatzekoa da 90. hamarkadarako gobernuaren

baldintza jada ez dela erabiltzen, eta horren ordez kasu ezarketa buru eta espezifikatzaile harremanaren bidez azaltzen dela.

Parametro honen arabera, hizkuntzak bi multzotan sailkatzen dira:

a) Hizkuntza nominatibo-akusatiboak: nahitaez denborari lotutako kasua aktibatzen da (nominatiboa deitua). Hizkuntza hauetan, akusatiboa agertzeko nominatiboa agertu behar da; bertzela erranda, akusatiboa nominatiboa dugun kasuetan bakarrik agertuko da.

b) Hizkuntza ergatibo-absolutiboak: nahitaez aditzari lotutako kasua aktibatzen da (absolutibo deitua). Kasu honetan, ergatiboa agertzeko derrigorrezkoa da absolutiboa agertzea. Beraz, absolutiboa da ergatiboa ager dadin ezinbertzeko baldintza.

Euskara azken hizkuntza multzo honetan kokatuta dago. NKPa argi uzten du ergatiboa agertzeko baldintza zein den: perpaus horretan bertan absolutiboa ere agertzea. Horrela, bada, absolutiboa ezinbertzekoa izateak perpaus horrek derrigorrez bi argumentu eduki beharra du ondorio. Horrek guztiak ondorioztatzen du ergatiboa argumentu kopuruari lotuta dagoela zuzenean.

Lakaren (1993a) iritziz, euskararen kasu-markaketaren ohiko paradigma honelakoxea da:

- (28) a. Emakumeak emakumea ikusi du.
- b. Emakumea erori da.
- c. Emakumeak barre egin du.

(28a) iragankorra da, eta bi argumentu ditu: egilea (*emakumeak*) eta gaia (*emakumea*). Horretaz gain, egilea ergatiboz markatuta ageri da; gaiak, aldiz, ez du inolako markarik.

(28b) perpaus iragangaitz ezakusatiboa da, eta argumentu bakarrekoa (kaltetuna). Argumentu bakar hori markatu gabea da. Azkena, (28c), berez, perpaus iragangaitz ezergatiboa, argumentu bakarrekoa (egilea). Argumentu bakar hori markatuta dago.

Beharbada azken perpaus honek zalantzak sortuko dizkigu: perpaus honetan zer da, bada, *barre*? Hale eta Keyserrek (1991) diotenaren arabera, (28c) adibidearen moduko perpausak iragankorrak dira unibertsalki, eta horrek erran nahi du *barre* argumentu bat dela, gaia, hain zuzen ere. Horrekin bat egiten du Lakak ere: *negar egin, barre egin, hitz egin, keinu egin* bezalako egin aditzak bi elementu independentez osatuta daude, mugagabeen dagoen izen baten eta *egin* aditzaren baturaz, zehazki. Mugagabeen dagoen izen hori IS soiltzat hartzen du Lakak, eta ez DStzat.

Horrenbertzez, ez du zertan mugitu kasua eskuratzeko, eta *in situ* geratzen da, AS osagaiaren barruan.

Dena den, badira *izena + egin* egitura ez duten bertzelako predikatu iragangaitz ezergatiboak ere:

(29) a. Emakumeak dantzatu du.

b. Emakumeak kantatu du.

Adibide horiek lehen NKPren inguruan aipatu dugunaren kontra doaz, itxura batean behintzat. *Emakumeak* egilea da bi kasuetan, eta ergatiboz markatua agertzen zaigu; baina, itxura batean ez dago absolutiborik. Nola liteke, ergatiboa agertzeko absolutiboa ezinbertzekoa bada? Lakaren (1993a) erantzuna honakoa da: honelako predikatuak iragankorrak dira, eta *pro* osagarri bat daramate bere baitan, noizean behin benetako osagarri batekin txandakatu daitekeena:

(30) a. Emakumeak *fandangoa* dantzatu du.

b. Emakumeak *fadoa* kantatu du.

Laburbilduz, eta azken adibide hauek alde batera utzita, Lakaren (1993a) ikuspegiaren arabera ergatiboa argumentu kopuruari zuzenean loturik dago. Bi argumentudun perpausetan ergatiboa ageri da, baina argumentu bakarra dagoenean, ez.

3.3.2 Fernándezen (1997) ikuspegia

Fernándezek (1997) Lakaren (1993a) bidea jarraitzen du, baina azterbide berriago batekin. Gainera, aditz ezergatiboen analisi xeheago bat proposatzen du. Azter dezagun polikiago.

Egile honentzat, hiru sail bereizi behar dira predikatu ezergatiboen artean: *mintzatu* erakoak, *borrokatu* erakoak eta *alde egin* erakoak. Lehen multzokoak egiturazko absolutiboaz markaturik agertzen dira eta *izan/*edin* laguntzaileak hartzen dituzte; bigarren eta hirugarren multzokoetan, aldiz, subjektua ergatiboa izaten da eta laguntzailea **edun/*ezan*. Modu honetan, euskaraz predikatu ezakusatiboak egiturazko absolutiboari lotuta leudeke, eta ezergatiboak, oro har ergatiboari, nahiz eta azken mutzo honetako batzuk egiturazko absolutiboari loturik ere egon daitezkeen.

Mintzatu saileko ezergatiboak:

Levinek (1983) eta jarraian ikusiko dugun bezala Oyharçabalek (1992) theta rolei erreparatzen diete predikatu ezakusatiboak eta ezergatiboak bereizterako orduan, eta *mintzatu* aditza egileduntzat hartzen dute, eta ondorioz, ezergatibotzat. Levinentzat, (1983) NOR aditz guztiak ezausatiboen multzoan sartzen ez den aditz bakarra *mintzatu* da, absolutibodun egilea baita. Oyharçabalen (1992) ustez, ordea, ez da *mintzatu* salbuespen bakarra, anitzez ere gehiago daude, batez ere ekialdeko hizkeretan (ikus 3.4 atala).

Aipatu behar da Fernándezek (1997) *mintzatu* saila predikatu ezergatibotzat hartzen duela: batetik, iragankortzat hartzen duelako egitura lexiko erlaziozkoan; bertzetik, nahiz eta konputazio sisteman iragangaitza dela pentsatu, objektua inkorporatu egiten duelako. Beraz, sintaktikoki argumentu bakarrekoa denez, absolutiboa dagokio.

- Borrokatu *erako ezergatiboak*

Fernándezek (1997) dioenez, multzo honetakoak predikatu iragankorrak dira baita konputazio sisteman ere, eta horregatik hartzen dute ergatiboa.

Hale & Keyserren (1993) Bobaljiken (1993) eta Lakaren (1993a) arabera, ergatiboa ezartzen bada, ezin da objektua inkorporatu. Fernández (1997), ordea, ez dator bat honekin: bere ustez, objektua inkorporatu egiten da, sintaktikoki gainera:

(31) a. Herriak borroka egin du.

b. Herriak [borroka] [A \emptyset] du > herriak [~~borroka~~] [A borroka + \emptyset] du.

Ondorengo adibideetan ikusiko dugun bezala, *borrokatu mintzatu* erako predikatua ere izan liteke, subjektu absolutiboa eta *izan/*edin* laguntzailea hartzeko gaitasuna baitu:

(32) a. Borrokatu naiz, preso ere bai.

b. Batzuk borrokatu ziren Aurkitzeko ordokian.

Lakaren (1993a) iritziz, *borrokatu* erako ezergatibo hauetan ez da objektua inkorporatzen, eta *produn* predikatuak dira.

Fernándezen (1997) ustetan, egitura lexikoan nahiz konputazio sisteman iragankor diren predikatu ezergatibook objektua inkorporatzeko gaitasuna dute: hots, lexikoki (*mintzatu* erakoek bezala), baina baita sintaktikoki ere, kasu honetan bezala.

Beraz, *borrokatu* sailean aditz barruko osagarriak kasu absolutiboa jasotzen duenez, ergatiboa bigarren kasua da.

- Alde egin erakoak

Honako aditz hauek sartzen ditu Fernándezek (1997) sail honetan: *aharrausi egin, alde egin, barre egin, berba egin, doministiku egin, ezgul egin, hitz egin, hots egin, gernu egin, kale egin, lan egin, lo egin, negar egin, txiza egin, zintz egin* eta *zirri egin*.

Hale & Keyserren (1993), Bobaljiken (1993) eta Lakaren (1993a) hitzetan, objektuaren inkorporaziorik gabeko ezergatiboak dira aipatu berri ditudanak, eta *egin* aditzarekin batera datorren izenari partitiboa ezarri ahal izatea hartzen dute horren adierazgarri⁶, bertzeak bertze. Fernándezek (1997), aldiz, kontrakoa erraten du: objektu inkorporazioa jasaten dutela.

Mota honetako ezergatiboek, bertze bi sailetakoekin konparatuz, badute berezitasunik: *mintzatu* eta *borrokatu* sailekoek ageriko argumentu bakarra erakusten dute; *alde egin* erakoek aldiz, agerian dute objektua (*egin* aditzarekin batera datorren izena). Ageriko objektu hori inkorporaziorik gabeko iragankortzat hartzen dute Hale & Keyserrek (1993), Bobaljikek (1992 b, 1993) eta Lakak, 1993a). Bertze autore batzuentzat, (Uribetxebarria, 1989; Fernández, 1993; Lopez & Austin, 1995; Martinez, 1996), ordea, *alde egin* sailekoak inkorporazio bidez eratuak dira, eta IS da inkorporatutako IS zehaztugabe hori. Fernándezentzat, inkorporazioa maila postsintaktiko batean gertatzen da, baina kasu absolutiboa hartzen edo erkatzen du; horrexegatik da ergatiboa bigarren kasua.

Fernándezen (1997) ekarpena laburtze aldera, honakoa erran dezaket: predikatu ezergatiboak iragankorrak dira, eta iragankortasun hori objektua inkorporatetik dator. Bertzalde, ezergatiboetan hiru sail bereizten dira (*mintzatu, borrokatu* eta *alde egin*), eta hirurek inkorporatzen dute objektua, nahiz eta ez duten ez maila berean ez ondorio berberekin ere egiten: lehenek hiztegi barruan inkorporatzen dute eta sintaktikoki argumentu bakarreko aditzek bezala jokatzen dute; bigarrenek syntaxian zehar inkorporatzen dute osagarria eta sintaktikoki bi argumentu dituzte; azkenik, hirugarren sailekoek ere bi argumentu dituzte baina osagarria Logika Formaren mailan inkorporatzen dute.

⁶ Xehetasun gehiagorako ikus Fernándezen (1997:123-126) doktore tesia.

3.3.3 *Rezac, Albizu eta Etxepareren (2014) ikuspegia*

Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek (2014) ergatiboa egiturazkoa dela aipatzen dute. Horren arabera, eta behin baino gehiagotan aipatu dudan bezala, beharrezkoa da kasu objektiboa egotea ergatiboa pizteko. Egile hauen arabera, euskararen ergatibitatea ez dago derrigorrez lotua egiletasunarekin, egiturazko konfigurazio jakin batzuekin baino. Ez hori bakarrik: konfigurazio horiek ezaugarri morfosintaktiko arruntak dituen denbora kategoriarekin lotzen dira.

Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek bi datu multzo ematen dituzte beren ikuspegia defendatzeko. Lehenak *-t(z)en* nominalizazioa hartzen duten egiturekin du zerikusia:

(33) a. Nik [Aitor lo egiten] ikusi dut.

b. Aitorrek lo egin du.

(33a) adibidean, menpeko perpaus bat dugu bertze nagusi baten baten barruan; (33b) adibidea, ordea, lehenengoaren menpeko perpausean duguna litzateke. Ikus dezakegun moduan, (33a) adibideko *Aitor* subjektua absolutiboan dago; izan ere, *-t(z)en* egiturak ez dio ergatiboa hartzen uzten, bere denbora kategoria defektiboa edo akastuna delako. Horren ondorioz, batetik, ergatiboa eta egiletasuna ez daude lotuta; eta bertzetik, ergatiboa ezin da berezko izan, kasuaren ezarketa eta theta-rolarena ez baitoaz elkarrekin. Ergatiboa, kasu honetan, konfigurazio berezi baten menpe dago.

Bigarren datu multzoak *behar* aditzarekin du zerikusia:

(34) Anderrek [~~Ander~~ atera] behar du.

Kasu honetan ere, ergatiboa ez dago egiletasunaren menpe: *behar* aditzak inposatzen du ergatiboa goikoa bezalako perpaus iragankorretan. *Ander* menpeko perpausaren subjektuak igoera bat jasaten du, eta ondorioz, ergatiboa hartzen du, perpaus nagusiko Denbora kategoriari dagokiona. Dena den, bada bertzelakorik proposatzen duenik ere:

(35) Anderrek [PRO etorri] behar du.

Goikoa kontrol egitura bat da, eta menpeko perpausean PRO subjektu bat dagoela jakintzat ematen da.

Dena den, Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek (2014) defendatzen dute analisi zuzena igoerarena dela (=34koa), *behar* aditz modalaren osagarri gisa perpaus itxurako esamolde idiomatikoak posible baitira:

(36) a. Urak bide egin du. “Gauzak aitzinera joanen dira”.

b. Urak bide egin behar du. “Gauzek aitzinera egin behar dute”.

Esamolde idiomatiko bat benetako kontrol egitura batean sartzen saiatzen bagara, ikusiko dugu esamoldearen zentzua galdu egiten dela:

(37) Ura bide egiten saiatu da. # “Gauzak aitzinera egiten saiatu dira”.

Aipatutakoarekin batera, honako bereizketa hau egiten dute Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek (2014):

(38) a. [Familiakoak gaizki egon] behar dute.

b. [Familiakoek ~~familiakoek~~ gaizki egon] behar dute.

(38a)-ren kasuan, *familiakoak* kontzeptu zehatza da, aurretik aipatua izan dena eta behe posizioan dagoena. Horregatik, absolutiboz markatua ageri da. (38b), aldiz, beheko posiziotik goikora igaro da eta ergatiboa hartu du. Mugimendu hori orokorra den zerbaiti buruz ari garenean gertatzen omen da. Nolanahi ere, bi egitura horietan sumatzen da **edun* laguntzaile iragankorra. Lehen egituran, subjektua mendeko egituran geratuko litzateke eta bigarreanean, berriz, goiko perpausera, goiko [esp, Denb] posiziora mugituko litzateke.

Laburbilduz, Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek (2014) defendatzen duten ikuspegi honetan, ergatiboa ez da egiletasunari loturik agertzen, behar bezalako ezaugarriak dituen Denb burua biltzen duten konfigurazio jakin batzuei loturik bazik⁷.

3.4. Tarteko ikuspegiak

3.4.1 Oyharçabalen (1992) ikuspegia: euskara, ergakusatiboa

Oyharçabalek (1992) hizkuntza ergakusatibotzat hartzen du euskara, eta horrek erran nahi du morfologikoki ergatiboa eta sintaktikoki akusatiboa dela. Hizkuntza mota hauetan hartu beharreko bertze kontu bat honako hau da: ergatiboa berezkoa izaten dute eta absolutiboa egiturazkoa izaten da, hau da, bigarren kasua. Horren arabera, aditz batzuetan, ergatiboa agertu ezin bada, absolutiboa agertuko da automatikoki egiturazko kasu bezala, nominatiboaren pare.

⁷ Preminger (2012) lanak ere ergatiboa egiturazkoa dela argudiatzen du nahiz eta batzuetan absolutiborik ez egon; izan ere, ergatiboa ez da nahitaez egiltasunari lotuta azaltzen, eta igoeraren ondorio ere izan liteke.

Euskara hizkuntza aktiboa dela dio; bertzela erranda, euskaraz ergatiboa egiletasunari zuzenean loturik dagoela, eta ez argumentu kopuruari. Horretan, beraz, Levini (1983) jarraitzen dio. Ez dago guztian Levinekin (1983) ados, ordea. Lehen aipatu dudan bezala, azken honek aditz ezakusatiboetan *mintzatu* aipatzen du salbuespentzat. Oyharçabalen (1992) ustez, ordea, ez da *mintzatu* salbuespen bakarra, anitzez ere gehiago daude, batez ere ekialdeko hizkeretan: *askaldu*, *afaldu*, *bazkaldu*, *dostatu*, *elekatu*, *elestatu*, *gosaldu*, *dugukatu hizkatu*, *hizketatu*, *jostatu* eta *solastatu*. Ikusten dugun moduan, *mintzatu* saila ez da Levinek (1983) uste zuen bezain eskasa.

Oyharçabalek (1992), gainera, aipatzen du *mintzatu* sailekoak ergatiboarekin ere agertu daitezkeela, baldin eta Perlmutterren (1978) ezergatiboen sailekoak badira. Horren adibide da *solastatu/solas egin* bikotea:

(39) a. Sainduz solastatu ziren luzaz.

b. Laborantzaz egin du gehienik solas.

Horretaz gain, euskara hizkuntza ergakusatiboa bada eta ondorioz ergatiboa berezko kasua (theta rol jakin bati lotua, kasu honetan egileari), Oyharçabalen (1992) ustez ezin da egon interpretaziorik gabeko edo theta rolik gabeko subjektu ergatiborik:

(40) Iduri du zerbait gertatu dela.

Ergatiboa berezkoa bada, goiko perpausean egile bat dagoela ulertu behar da, hau da, ezin da inpersonal modura ulertu (Artiagoitiak 2001 eta Rezac-ek, Albizuk eta Etxeparek 2014 erraten dutenaren kontra).

Oyharçabalek (1992) bertze ekarpen bat ere egiten du: absolutibo kasua osagarriari lotuta egon daiteke, baina ez osagarriari bakarrik, baita subjektuari ere. Subjektuak berezko kasu ergatiborik ez baldin badauka, alegia, ergatiboa ez badago egile rolari lotuta, edo ergatiborik ez badago, absolutiboa izanen da subjektuari lotuko zaiona⁸.

4. Aldakortasun dialektala eta ergatibitatea

Orain arte ergatibitatea egiletasunarekin edo argumentu kopuruarekin lotu dugu, baita berezkoa edo egiturazkoa izatearekin. Ezer gutxi aipatu dut, ordea, ergatiboak

⁸ Oyharçabalek (1994) gaiari lotutako bertze hipotesi batzuk plazaratu zituen: aditz ezergatiboetan ezin dela subjektu ergatiborik agertu, *izena +egin* moduko egiturak iragankorrak direla eta ezergatibo guztiak ez direla *izena + egin* motakoak (*iharduki*, *dirdiratu*...).

euskal hizkera ezberdinetan duen jokatzeko moduari buruz. Azken hau izanen da, hain zuzen, atal honen egitekoa.

Levinekin hasiko naiz. Levinek (1983) bere NOR Aditzen Hipotesia definitzearekin batera, salbuespen bakarra ematen du: *mintzatu*. Aditz hau, bere erranetan, berak definitutako aditz ezakusatiboetatik kanpo geratzen da. Euskal aditzak sakonago aztertuz gero, ostera, konturatuko gara ez dela *mintzatu* salbuespen bakarra, eta anitzez ere aditz gehiago sar daitezkeela zaku horretan: *elekatu, mintzatu, borrokatu, trufatu...* (Oyharçabal, 1994). Horrek argi uzten du NOR Aditzen Hipotesiak ez duela euskararen funtzionamendu orokorra azaltzeko balio, eta ezer azaltzekotan, gertuago legokeela mendebaldeko eta erdialdeko kasu-sistematik ekialdekoetik baino.

Bertzalde, Lakak (2006) lanean egiten duen proposamenean, absolutiboa eta egiletasuna ez dira inoiz elkartzen. Jakin badaki ekialdeko hizkeretan salbuespenak topa daitezkeela, eta, horregatik, argi uzten du ipar-ekialdeko sistema bere proposamen horretatik at uzten duela (Laka 2006:381).

Aurreko atalean aipatu bezala, Oyharçabalek (1992,1994), iparraldekoa izaki, kontuan hartzen ditu ipar-ekialdeko hizkerak, eta aipatzen du ezergatibo guztiak ez direla *izena+egin* moduko egiturak: *iharduki, dirdiratu...*

Berrok eta Etxeparek (2017: 793) ere ipar-ekialdeko hizkeretan ematen diren predikatu ezergatibo batzuen berri ematen dute:

(41) a. Xabier promenatu da.

b. Gizona asto gainera jauzi da.

Bi adibide hauek ikusirik, ondorioztatzen dute ekialdean ergatibo sistematik gertuago egon daitezkeela; izan ere, ohikoa da subjektu iragangaitz anitzi absolutiboa ezartzea. Dena den, ondoko bertze adibide hauek hankaz gora jartzen dute aipatu berri duguna:

(42) a. Eguzkiak argitzen du.

b. Urak kurritzen du.

Perpaus hauen arabera, ezin erran ekialdeko hizkerak ergatibo sistema puruak direnik ere.

Dialektoez ari garela, interesgarria iruditzen zait Berrok eta Etxeparek (2017: 795) aditz motak eta subjektuak hizkerekiko erlazioan jartzeko proposatu zuten taula hau gogoratzea:

	A mota	B mota	C mota
Subjektuaren kasua	Ergatiboa	Absolutiboa	Ergatiboa
Aditz motak	Borondatezko mugimendu aditzak Janariari lotutako aditzak Ekintza aditzak	Komunikazio aditzak Borondatezko mugimendu aditzak Janariari lotutako aditzak Mugimendu aditzak	Borondaterik gabeko emisio aditzak Borondaterik gabeko mugimendu aditzak Iraupen aditzak
Adibidea	Jonek dantzatu du	Jon dantzatu da	Eguzkiak argitzen du
Hizkera	Mendebaldekoa/erdialdekoa	Ekialdekoa	Guztiak

Taula honek ederki laburbiltzen du subjektuaren kasu-markaketak nola jokatzen duen aditzaren arabera eta hizkera ezberdinetan. Labur azalduz, *eguzkiak argitzen du* gisako perpausetan ematen du hizkera guztiek berdin jokatzen dutela: subjektua ergatiboz markatzen dute. Baina, badaude ekialdean bakarrik topa ditzakegun perpaus moduak: *Jon dantzatu da*, *Jon afaldu da* modukoak lirateke. Esaldi hauek arraroak lirateke mendebaldeko zein erdialdeko hizkeretan; are gehiago, hizkera horietan (hirugarren zutabearen ikus daitekeen moduan) subjektuak ergatiboa hartuko luke eta aditz laguntzailea **edun* motakoa izanen. Ekialdean, ordea, absolutiboa darabilte.

Aldai (2010) da ergatibitateaz mintzatzerako orduan aldakortasun dialektala kontuan hartu duten bertze hizkuntzalarietako bat. Honen erranetan, euskal aditz irangangaitz batzuek bi erregimen posible dituzte: absolutiboa eta ergatiboa. Dena den, ezberdintasunak daude dialektoaren arabera: subjektu absolutiboa ekialdeko euskalkieiei loturik dago gehinetan, eta subjektu ergatiboa, ordea, mendebaldeko euskalkieiei.

Aldaik (2010) aditz inergatibo bakunei⁹ jarri die bereziki arreta. Bere ustez, Levenin (1983) hipotesia zuzena balitz, aditz inergatibo bakunek subjektu ergatiboa eskatu behar lukete, eta jakina, aditz inakusatibo bakunek absolutiboa. Trasken (1997, 2002) hipotesia zuzena balitz (hau da, euskararen kasu-markaketa ergatiboa balitz), aditz irangangaitz bakun guztiek, bai inakusatiboek eta bai inergatiboek, subjektu absolutiboa izan beharko lukete.

⁹ Aditz inergatibo bakunak: higidura moduak (korritu, lasterkatu, hegatu...), bizidunen ekintza agentiboak (*dantzatu, jostatu, biajatu...*), bizidunen ekintza ez-agentiboak (*barautu, deskantsatu, beilatu...*), mintzaira aditzak (*mintzatu, solastu, elekatu...*), janari aditzak (*gosaldu, bazkaldu, afaldu...*) eta aditz inergatibo bakun bizigabeak (*irakin, argitu, dirdiratu...*).

Aipatu berri dudanean sakontze aldera, Aldaik (2010) euskalkien arteko aldeak aurkitzeko asmoz egin duen aditz inergatibo bakunen azterketa azterketa dugu. Eraitzen arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan aditz inergatibo bakun gehienek subjektu ergatiboa dute; Nafarroaren eta eta Lapurdiren kasuan, janari aditzak dira subjektu ergatiboa eskatzen dutenak. Hala ere, bada salbuespenik: *mintzatu, borrokatu, saltatu eta jolastu* bezalako zenbait aditz inergatibo bakunek subjektu absolutiboa eskatzen dute. Azkenik, Behe Nafarroari eta Zuberoari dagokienez, janari aditzek eta aditz inergatibo bakun gehienek subjektu absolutiboa darabilte. Bertzela erranda, Bizkaitik hasi eta Zuberoaraino aditz inergatibo bakunek gero eta subjektu ergatibo gutxiago erakuste dute, eta ondorioz, gero eta subjektu absolutibo gehiago.

5. Hausnarketa eta ondorioak

Azken hogeita hamar urteotan euskal ergatibitateaz erran diren kontu garrantzitsuenak laburbildu nahi izan ditut lan honetan. Orain, nire ekarpena egiteko momentua iritsi da; irakurri eta landu dudana zer iritzi dudan azaldu nahi nuke jarraian.

Hasteko, predikatu iragangaitzen barruan hainbat egilek proposatzen duten ezakusatibo/ezergatibo banaketa hori funtsezkoa iruditzen zait. Argumentu bakarra dago, bai, baina zein da argumentu hori? Eta zer marka ezartzen zaio? Gaia baldin bada, absolutiboa, eta egilea bada, ergatiboa. Honaino argi.

Arazoa ergatiboa egiletasunarekin lotzean agertzen zaigu, edo agertzen zaio, Levini (1983). Ergatiboa agertzeko baldintza subjektuak egile rola edukitzea bada, badira kanpoan utzi beharreko hainbat aditz. Levinek (1983) *mintzatu* uzten du kanpoan, baina hori baino anitzez ere salbuespen gehiago dago (Oyharçabal 1992, 1994): *borrokatu, elekatu, jolastu bazkaldu...* Alegia, *gaiaren* rola subjektuari lotuta egon daiteke Levinek (1983) proposatzen dituenak baino dexente aditz gehiagotan. Hori da, hain zuzen ere, Levinen (1983) hipotesiaren ahulguneetako bat: orokorpenak egiterako orduan ez dituela ipar-ekialdeko hizkerak kontuan hartzen.

Konponbide erraza du honek nire ustez: aski litzateke erratea euskaraz ergatiboa egiletasunari lotuta agertzen dela erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan, baina ipar-ekialdekoetan hainbat salbuespen topatzen ditugula, eta beraz, ezin dela orokorpena euskara osorako egin.

Levin (1983) ez da bakarri ipar-ekialdeko hizkerak alde batera uzten dituena. Lakak (2006) ere berdina egiten du bere proposamenetan, nahiz eta irakurlea jakinaren

gainean jartzen duen. Horrela, irakurlearen kritikak, hizkeren kontuari dagokionez behintzat, saihestu egiten ditu Lakak.

Aldaik (2010) eta Berrok eta Etxeparek (2017) bertzela jokutzen dute, eta ergatibitatea aldakortasun dialektalarekin lotzen dute, euskalkien artean agertzen diren ezberdintasunen berri emanaz. Horri lotuta, erran nahi dut garrantzitsua iruditzen zaidala bai ergatiboari edo bai bertze edozein alderdiri buruzko orokorpenak egiterakoan euskarak dituen hizkera guztiak kontuan hartzea. Badakit ez dela erraza, eta hizkuntzaren gaineko ezagutza handia eskatzen duela, baina ikusten da euskarak azpi-sistemak dituela, puntu honetan behintzat.

Bertze kontu interesgarri bat *izena+egin* motako aditz ezergatiboena da. Ikusi dugun bezala, egitura hori batzuentzat iragangaitza da, eta bertze batzuentzat, ordea, iragankorra. Nik iragangaiztat hartuko nituzke, izan ere, osagarri horiek kasu batzuetan behintzat, ez dira IS soilak; PoS edo AdbS ere izan litezke zenbait hizkeratan: *dantzan egin, borrokan egin, aitzina/aurrera egin, gibelera/atzera egin...*

Bertzalde, iruditzen zait euskaraz ez dela NKP betetzen. Gogora dezagun parametro honen arabera ergatiboa agertzeko ezinbertzeko baldintza dela absolutiboa agertzea. Aipatu berri ditutan *izena + egin* egitura horiek irangaiztat hartu ditut, hau da, erran dut argumentu bakarrekook direla; egilea da duten argumentu bakarra. Beraz, ergatibodun baina absolutiborik gabeko perpausen adibide izanen lirateke, nahitaezko kasuaren parametroa haustearen adibide.

Aditz deponenteak ere (*argitu, irakin iraun...*) arazo iturri dira, ergatiboa eskatzen dutelako, baina, aldi berean, absolutiboa ezartzea ezinezko delako: ergatibo hori ez du absolutiboak baldintzatzen.

Lanean zehar aztertu ditudan ikuspegiei dagokienez, erran nahi nuke ez zaidala iruditzen ergatibitatea argumentu kopuruari lotuta dagoenik, izan ere, ikusi dugun bezala, badira argumentu bakarrarekin subjektuari ergatiboa ezartzen dioten predikatuak. Kasu gehienetan, nire ustez, egiletasunari lotuta agertzen da, baina absolutiboa agertzen duten egiledun subjektuak ere badirenez, ekialdeko hizkeretan batez ere, ezin erran euskaraz oro har ergatibitatea egiletasunari lotzen zaionik.

Bukatzeko, aipatu nahi nuke lanean zehar azaldutako ikuspegi guztiak iruditzen zaizkidala interesgarri eta kontuan hartu beharrekoak. Bakoitzetik interesgarrien iruditzen zaidana kontuan hartuta, honela definituko nuke euskararen ergatibitatea: batetik, euskara morfologikoki ergatiboa eta sintaktikoki akusatiboa da; bertzetik, egiletasunari lotuta agertzen zaigu mendebaldeko hizkeretan batez ere, baina

salbuespenak topatzen ditugu ipar-ekialdeko hizkeretan; azkenik, ergatiboa berezkoa dela erratea ezinezkoa egiten zait horren kontrako argudioak ugari baitira; baina, aldi berean, egiturazkoa dela errateak ere arazoak sortzen dizkit, absolutiboak beti ez baitu ergatiboa agertzea baldintzatzen.

6. Bibliografia

- Alberdi, X. (2003), "The transitivity of borrowed verbs in Basque: an outline", *ASJU* XLVI, 23-46.
- Aldai, G. (2010), "Euskararen kasu-markaketaren aldakortasun dialektala", *ASJU Geh* 52, 5-19.
- Artiagoitia, X. (2000), *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia-EHU.
- Artiagoitia, X. (2001), "Seemingly ergative and ergatively seeming", in *Features and interfaces in Romance*, eds. Julia Herschensohn, Enrique Mallén and Karen Zagona, Amsterdam, Benjamins, 1-22.
- Albizu, P.; Etxepare, R. & Rezak, M. (2014), "The structural ergative of Basque and the theory of Case", *Natural Language and Linguistic Theory*, Vol. 32, 1273-1330.
- Berro, A. & Etxepare, R. (2017), "Ergativity in Basque", J. Coon, D. Massam, L. D. Travis (arg.) *The Oxford Handbook of Ergativity*, Oxford, Oxford University Press, 782-806.
- Bobaljik, J. (1993), "Ergativity and ergative unergatives", *Papers on Case & Agreement* 2, Vol. 19 of MIT working papers in linguistics, Cambridge, MITWPL, 45-48.
- Burzio, L. (1986), *Italian syntax: a government-binding approach*, Dordrecht, D. Reidel.
- Chomsky, N. (1986), *Knowledge of language*, Praeger, New York.
- Eguzkitza, A. (1986), *Topics on the syntax of Basque and Romance*, Indiana, Indiana University Linguistics Club.
- Euskaltzaindia (1991), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak (EGLU)*, Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia (2002), *Euskal Gramatika Laburra: perpaus bakuna (EGLA)*, Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua, EHU, *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3.
- Fernández, B. (1997), *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, EHUko doktorego tesia.
- Hale & S. J. Keyser. (1993), "On argument structure and the lexical expression of syntactic relations", K. Hale & S. J. Keyser (arg.), *The view from Building 20. Essays in Linguistics in honor of Sylvain Bromberger, Current studies in linguistics series* 24, MIT.
- Hualde, J.M. & Ortiz de Urbina (arg), (2003), *A grammar of basque*, Berlin, Mouton de Gruyter.

- Laka, I. (1993a), “Unergatives that Assign Ergative, Unaccusatives that Assign Accusative”, *Papers on Case & Agreement I*, Vol. 18 of MIT Working Papers in Linguistics, Cambridge, MITWPL, 149-172.
- Laka, I. (1993b), “The Structure of Inflection: A case study in X⁰ syntax”, in J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg), *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam, John Benjamins 21-70.
- Laka, I. (2006b), “On the Nature of Case in Basque: Structural or Inherent?” *Organizing Grammar*, eds. Hans Broekhuis, Norbert Corver, Riny Huybregts, Ursula Kleinhenz and Jan Koster, Berlin, de Gruyter, 374-382.
- Levin, B.C. (1983), *On the nature of ergativity*, MIT doktorego tesia, Cambridge, MA.
- Lopez, L. & Austin, J. (1995). “Nominative, absolutive and dative languages”, Cornell University (Ithaca) NY, eskuizkribua.
- Marantz, A. (1984), “The ergative parameter”. *On the nature of grammatical relations*, The MIT Press, chapter 6, MA, Cambridge.
- Martinez, A. (1996), “Syntactic evidence in favor of degrees of incorporation in [N + egin] constructions”, *Deustuko Hizkuntzalaritza Mintegia* .
- Oyharçabal, B. (1992), “Structural Case and Inherent Case Marking: Ergaccusativity in Basque”, In J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (Arg) *Syntactic Theory and Basque Syntax*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 309-342.
- Oyharçabal, B. (1994), “Contribution de la comparaison typologique à une analyse des rapports ergatibité-(in)transivité en basque”, in J-B. Orpustan, (arg), *La langue basque parmi les autres (Influences et comparaison)*, Baigorri, Izpegi, 115-148.
- Ortiz de Urbina, J. (1989), *Parameters in the Grammar of Basque*. Holland. Dordrecht, Foris.
- Rufodlf P.G. de Rijk (2008), *Standar Basque a progressive grammar*. Massachussets, The MIT Press.
- Perlmutter, D. (1978), “Impersonal passives and the unaccusative hypothesis”, J. Jaeger & A. C. Woodbur (arg.) BLS 4, 157-189.
- Postal, P. (1977), “Antipassive in French”, in: *Linguisticae Investigationes* 1, 333-374.
- Preminger, O. (2012), “The absence of oan implicitobject from unergatives: new and old evidence from Basque”, *Lingua* 122, 278-288.
- Salaburu, P. (1992), “Euskara, hizkuntza ergatiboa ote da?” *IKER* 6, 417-435.
- Sarasola, I. (1977), “Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes”, *ASJU* XI, 51-90.

- Trask R. L. (1997), *The history of Basque*, London/New York, Routledge.
- Trask R. L. (2002), “Ergativity and accusativity in Basque”, In K. Davidse & B. Lamiroy (arg.), *The nominative and accusative and their counterparts*, Amsterdam, John Benjamins, 265-284.
- Uribe-Etxebarria, M. (1989), “On noun incorporation in Basque and some of its consequences in the phrase structure”, University of Connecticut, eskuizkribua.